



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak musikal handi baten aldeko apustua egingo du uda honetan ere, *La Jaula de las Locas* programatuz abuztuaren 18tik irailaren 11ra

- Àngel Llàcerrek eta Manu Guixek zuzentzen dute ikuskizuna, eta 24 artista eta musikaririk jardungo dute zuzenean, Llàcer bera eta Ivan Labanda protagonista direla, biak Zaza pertsonaiarena egiten.

Bilbo, 2022ko maiatzaren 6a.- Arriaga Antzokiak ikuskizun musikal handi bat eskainiko die berriro ere uda honetan Bilboko ikusleei. *La Jaula de las Locas* izango da oraingoan, Nostromo Live-k ekoitzia, Àngel Llàcer eta Manu Guix-en zuzendaritzapean eta Miryam Benediteden koreografiekin. Ikuskizunean 24 artista eta musikaririk jardungo dute zuzenean, eta Àngel Llàcer bera eta Ivan Labanda dira protagonistak, biek egiten baitute Zazarena.

La Jaula de las Locas ikusle guztientzako ikuskizuna da. Tramak tonu dibertigarri eta ironikoa duenez, musikala ikusle guztientzako komedia ezin hobe bihurtzen da, eta mundu osoko milioika pertsonen txaloak jaso ditu jada. Arriaga Antzokiak gaur bertan jarriko ditu salgai abuztuaren 18tik (estreinaldiko egunetik) irailaren 11ra bitartean eskainiko dituen 30 emanaldietarako sarrerak.

La Jaula de las Locas (La Cage aux folles), jatorriz, Jean Poiret antzerkigile frantsesak idatzi eta antzeztutako antzezlan da, 1973an Parisen estreinatu zena. Antzezlana gisa, 2.000 emanalditik gora egin zituen eta 15 urtez jarraian egon zen ikusgai.

Eszenaratze berri hau Jerry Herman eta Harvey Fiersteinen formatu handiko bertsio musikalean oinarritzen da, 1983an Broadwayn estreinatu zen eta sei Tony sari irabazi zituen hartan. Horrez gain, 2010eko Broadwayren bertsio revivala ere hartzen du erreferentzia gisa, hiru Tony Sari eta hiru Drama Desk Awards irabazi zituena. *La Jaula de las Locas* generoaren historian bereziki garrantzitsua den ikuskizuna da, sozialki sentikorrak diren gaiak modu ireki eta optimistan eszenaratzeko estiloan eta moduan eragin erabakigarria izan duena.

La Jaula de las Locas Broadwayko historian mila emanaldiak gainditu zituen lehen musikala izan zen, eta baita besaulki-patioko sarrerak 47.5 dolarretan kobratu zituen lehena ere. Broadwayn izandako arrakastaren ondoren, *La Cage aux folles* West Endera iritsi zen, eta baita Berlinera ere, eta orduz gero etengabe antzeztu da mundu osoan. Historiako musikalik ezagunenetakoa da eta hainbat dira zinemarako egin diren egokitzapen arrakastatsuak. Testuaren gaztelaniazko bertsioa Roser Batalla eta Roger Peñarena da.

Muntaia oso txalotua

Nostromo, Llàcer eta Guix-ek egindako *La Jaula de las Locas* obraren bertsioa hainbat bider saritu dute estreinatu zenetik: "Premis de la Crítica" sarietan musikalak 4 izendapen jaso zituen eta Musikaleko Aktore Onenaren kategorian irabazi zuen, Àngel Llàcerren antzezpenagatik.

Gainera, "Premis Butaca" sarietan 5 izendapenetatik 4 eskuratu zituen honako kategoria hauetan: Musikaleko Aktore Onena —Àngel Llàcerren paperarengatik—, Musikal Onena, Jantzien Diseinu Onena eta Karakterizazio Onena.

Musikala Madrilen eta Bartzelonan izandako arrakasta handiaren bermearekin iritsiko da Bilbora, bi hiri horien artean 300.000 ikusle baino gehiago izan ondoren. Gainera, kritikek gogotsu erantzun zuten Bartzelonan eta Madrilen eta, besteak beste, azpimarratu zuten *La Jaula de las Locas* "apoteosikoa" dela (La Vanguardia) "optimismo txute bat" (El País), "musika, glamourra eta dibertsio handia" (Time Out), edo "sekulako festa" (El periódico de Catalunya), kritiketako batzuk aipatzearen.

Oholtzaratze berri honek bi ordu eta erdiko dibertsioa proposatzen du; horri dekoratu handien glamourra eta 140 jantzi-aldaketak gehitu behar dizkiogu. *La Jaula de las Locas*ek generoaren historia markatu duten 13 abesti proposatzen ditu, hala nola: "Yo soy lo que soy" ("I am what I am") edo "La vida empieza hoy" ("The best of times"). Azken batean, ikuskizunak musikal handi bati dagozkion elementu guztiak ditu.

Sinopsia

Albin eta Georges bikotekideek bizimodu baketsua dute. Saint Tropezeko *La Cage aux Folles* gaueko klubaren jabeak dira, baina ezusteko albiste batek erabat aldatuko du dena. Jean Michel, Georges-en semea, ezkontzera doa, familia-bizitzako baliorik tradizionalen defendatzaile porrokatua den diputatu ultrakontserbadore baten alabarekin. Hain desberdinak diren bi familiaren arteko topaketa harrigarriak maitasunez eta eldarniozko egoerez beteriko komedia dibertigarria piztuko du.

La Jaula de las Locas askatasun indibidual eta kolektiboaren aldeko kantua handia da. Bere mezua indartsua eta beharrezkoa da duela oso gutxira arte erabat egonkortutzat jotzen ziren era guztietako gizarte-askatasunak berriro zalantzan jartzen ari diren garai hauetan. Eta gai unibertsal baten bidez helarazten du: mundu guztiarentzat jarraibide eta jokabide estandarrak ezartzen dituen mundu honetan haize kontra joateko ausardiaren bidez. Emanaldi bakoitzak "La Jaula" festa bihurtzen du, *joie de vivre*aren ospakizun; badakigu nola hasten den, baina inoiz ez nola amaitzen den!

Oholtzaratze ausarta, koreografia harrigarriak, jantzien diseinu ikusgarri eta oparoa, eta gai unibertsalak. Horiengatik guztiengatik da historiako musikal ospetsuenetako bat.

Gaur, hilak 6, sarrerak salgai

Sarrerak gaur bertan (ostirala, maiatzak 6) jarriko dira salgai, 12:00etan, ohiko salmenta bideetatik: www.teatroarriaga.eus webgunean edo antzokiko leihatilan alde aurretiko salmenta ordutegian.

Broadwayko musikal handiari ezarritako prezioak 20 eta 59 euro artekoak dira, deskontu ezberdinekin.

ARRIAGA ANTZOKIA - Emanaldien egutegia

ABUZTUA

OSTEGUNA	18	19:30 ESTREINALDI OFIZIALA
OSTIRALA	19	17:00 eta 21:00
IGANDEA	21	18:00
ASTELEHENA	22	19:30
ASTEARTEA	23	19:30
ASTEAZKENA	24	19:30
OSTEGUNA	25	19:30
OSTIRALA	26	19:30
LARUNBATA	27	17:00 eta 21:00
IGANDEA	28	18:00
ASTEARTEA	30	19:30
ASTEAZKENA	31	19:30

IRAILA

OSTEGUNA	1	19:30
OSTIRALA	2	18:00 eta 21:30
LARUNBATA	3	18:00 eta 21:30
IGANDEA	4	17:00 eta 20:30
ASTEARTEA	6	19:30
ASTEAZKENA	7	19:30
OSTEGUNA	8	19:30
OSTIRALA	9	18:00 eta 21:30
LARUNBATA	10	18:00 eta 21:30
IGANDEA	11	17:00 eta 20:30

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus